

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKINEN ENERGIA-KALIFIKAZIOA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0570		
Lanbide-arloa	ENERGIA ETA URA		
Lanbide-eremua	Energia-efizientzia		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikinen energia-eraginkortasuna	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikinen energia-ziurtapena	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Etxegintza eta eraikinetako energia-efizientzia.	Iraupena	90
	Eraikinetako energia-efizientziarekin lotutako programa informatikoak.	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1195_3: ERAIKINEN ENERGIA-ZIURTAPENEN PROZESUAN LAGUNTZEA gaitasun-ataleko LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, energia-kalifikazioa lortzeko eraikinaren eta eraikineko energia-instalazioen eraikuntza-ezaugarriak identifikatzeari eta definitzeari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eraikinen energia-kalifikazioa lortzeko prozesuan ezarritako metodologia aplikatzea.

EI1.1 Energia-kalifikazioko prozesuan nahitaezkoak diren eraikinen eraikuntza-ezaugarriak identifikatzea eta definitzea.

EI1.2 Berokuntzaren eta ur bero sanitarioaren instalazioen ezaugarriak definitzea, betetzen duten energia-eskariari dagokionez.

EI1.3 Aire girotuaren eta aireztapeneko instalazioen ezaugarriak zehaztea, betetzen duten energia-eskariari dagokionez.

EI1.4 Argi-instalazioen ezaugarriak zehaztea, betetzen duten energia-eskariari dagokionez.

EI1.5 Energia-kalifikazioko prozesuan nahitaezkoak diren eraikinetako energia berriztagarrien instalazioen ezaugarriak identifikatzea eta definitzea.

EI1.6 Erreferentziatzko eraikin-mota guztien ezaugarriak zehaztea klima-zona bakoitzerako.

EI1.7 Jarraitutako prozesuaren ondoriozko energia-kalifikazioko indizeak zehaztea.

EI1.8 Kalifikazioaren legezko akreditazioak edo etiketak eskatzen dituen espezifikazio teknikoak azaltzea eta indarreko araudiarekin lotzea.

EI1.9 Bizitegitarako eraikin bati dagozkion planoak eta dokumentazio teknikoa ditugu eta eraikin horretan energia elektrikoaren eta termikoaren eskaria egonik ur bero sanitarioarako eta berokuntzarako:

- Energia-kalifikazioan baliatu beharreko erreferentziatzko eraikinaren ezaugarriak zehaztea.
- Eraikinari dagokion energia-kalifikazioaren indizea kalkulatzeko.
- Energia-kalifikazioaren legezko akreditazioa edo etiketa betetzea.

EI1.10 Administrazioarako, irakaskuntzarako, osasungintzarako, kirolerako, merkataritzako, kulturarako edo erlijiorako erabiltzen den eraikin bati dagozkion planoak eta dokumentazio teknikoa ditugu eta eraikin horretan energia elektrikoaren eta termikoaren eskaria egonik ur bero sanitarioarako eta berokuntzarako:

- Energia-kalifikazioan baliatu beharreko erreferentziatzko eraikinaren ezaugarriak zehaztea.
- Eraikinari dagokion energia-kalifikazioaren indizea kalkulatzeko.
- Energia-kalifikazioaren legezko akreditazioa edo etiketa betetzea.

A2: Energia-ziurtapena lortzeko, eguneratzeko eta berritzeko eskatzen den dokumentazioa osatzea.

EI2.1 Energia-ziurtapena lortzeko, eguneratzeko, berritzeko edo hobetzeko jarraitu beharreko administrazio-prozesua deskribatzea.

EI2.2 Eraikinen energia-ziurtapena lortzeko prozesuan beharrezkoak diren administrazio-dokumentuak biltzea, sailkatzea eta betetzea.

EI2.3 Eraikinen energia-ziurtapena eguneratzeko, berritzeko edo hobetzeko prozesuan beharrezkoak diren administrazio-dokumentuak biltzea, sailkatzea eta betetzea.

EI2.4 Inguratzailearen isolamenduarekin, beira-parametroekin, sorkuntza termikoko instalazioen errendimenduarekin, energia-mota aukeratzearekin eta energia-kalifikazio hobea lortzeko bestelako neurriekin lotutako gomendioak biltzen dituzten dokumentuak lantzea.

Edukiak

1. Energia-eskariaren muga

- Erabilera-eremuak.
- Energia-eskaria mugatzearen oinarri teknikoak.
- Klima-zona zehaztea.
- Egiartzatzeko prozedura:

- Aukera sinplifikatua. Batez besteko parametro bereizgarriak.
- Aukera orokorra. Metodoaren espezifikazioak.
- Justifikazioko dokumentazioa.
- Aukera sinplifikatuaren aplikazio praktikoa.

2. Eraikinen energia-ziurtapena

- Energia-efizientiaren kalifikazioaren kontzeptua.
- Energia-kalifikazioa lortzeko aukerak:
 - Aukera orokorra (prestazio-izaerakoa).
 - Aukera sinplifikatua (aginduzkoa).
- Energia-ziurtapen motak:
 - Eraikin baten energia-ziurtapena.
 - Proiektuaren energia-efizientiaren ziurtapena.
 - Bukatutako eraikinaren energia-efizientiaren ziurtapena.
- Kanpoko kontrola eta ikuskapena.
- Energia-efizientiaren ziurtapenaren balioaldia, berritzea eta eguneratzea.
- Energia-efizientiaren etiketa.
- Aukera sinplifikatuaren aplikazio praktikoa:
 - Aplikazio-eremua.
 - Soluzio teknikoen taula.

3. Energia-efizientziari buruzko araudia

- Eraikuntzaren Kode Teknikoa.
- Eraikinen energia-efizientziarekin lotutako Europako arauak eta gomendioak.
- Eraikinen energia-kalifikazioa eta -ziurtapena. Udal-ordenantzak eta bestelako legeria eguzki-energiaren sektorean.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0569 gainditua izan behar du: Etxegintza eta eraikinetako energia-efizientzia.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikinen energia-eraginkortasuna.